## UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

## 2017ko URRIAREN 24a / 24 - OCTUBRE - 2017

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 24/10/2017

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna

Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Mª Soledad Juaristi Alberdi andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Jorge Varela Dorrio jauna
Don Don Francisco Javier López Lakunza jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea

Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- (EH BILDU) EUSKAL HERRIA BILDUKO ZINEGOTZIA DEN MARIA SOLEDAD YOLANDA JUARISTI ALBERDI ANDREAREN KARGU ARTESA.**

**UNO.- TOMA DE POSESIÓN DE LA CONCEJALA POR EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) DOÑA MARIA SOLEDAD YOLANDA JUARISTI ALBERDI.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Lehenengo puntu bietan kargu-hartze bi dauzkagu eta bietara sartu baino lehen, biei aplikatzeko moduko hitz batzuk entzungo ditugu, gure Idazkari jaunak esandakoak.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Los primeros dos puntos son tomas de posesión de cargos, así que antes de ponernos a ello, vamos a escuchar unas palabras de nuestro Secretario que son aplicables a ambos.

* Idazkari Orokorra **Sorrarain Tolosa jaunak**: Egiaztagiriak eta Zinegotziek ondasun eta jardueren aitorpena aurkeztu dutela baieztatu ondoren, hauteskunde erregimen orokorreko lege organikoaren 108.8 artikuluan ezarritako baldintza betetzeari ekingo zaio. Hautagaiek, banan-banan, karguaren betebeharrak beteko dituztenaren zina egingo dute.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Tras verificar los certificados y que los Concejales han presentado la declaración sobre su patrimonio y sus actividades, se procede a cumplir el requisito establecido en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General. Los candidatos van a jurar de uno en uno las obligaciones de su cargo.

Jarraian, LOREG legearen 108.8 artikuluak ezartzen duena betez, hautagaiak karguaren betebeharrak beteko dituenaren zina edo promesa egingo du.

A continuación, en cumplimiento de lo establecido por el art. 108.8. de la LOREG, el candidato jurará o prometerá el cumplimiento de las funciones propias del cargo.

* **Juaristi Alberdi andreak (EH Bildu)**: Herri subiranoaren aurrean zinegotzi karguaren betebeharrak fideltasun osoz beteko ditudala hitzematen dut.

* Concejala **Sra. Juaristi Alberdi (EH Bildu)**: Prometo ante el pueblo soberano que cumpliré las obligaciones del cargo de concejala con total fidelidad.

**BI.- (SK-2D) HERRIAREN ESKUBIDEAREN ZINEGOTZIA DEN FRANCISCO JAVIER LOPEZ LAKUNZA JAUNAREN KARGU ARTESA.**

**DOS.- TOMA DE POSESIÓN DEL CONCEJAL POR HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D) DON FRANCISCO JAVIER LÓPEZ LAKUNZA.**

Jarraian, LOREG legearen 108.8 artikuluak ezartzen duena betez, hautagaiak karguaren betebeharrak beteko dituenaren zina edo promesa egingo du.

Seguidamente, en cumplimiento de lo establecido por el art. 108.8. de la LOREG, el candidato jurará o prometerá el cumplimiento de las funciones propias del cargo.

* **Lopez Lakunza jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Herri subiranoaren aurrean zin dagit leialki beteko ditudala zinegotzi karguari dagozkion eginkizunak, harik eta herri honek prozesu konstituziogileak irekitzen dituen arte eta oinarrizko legeak herritarren menpe eta ez elite ekonomiko eta politikoen menpe izan arte.

* Concejal **Sr. Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea)**: Prometo ante el pueblo soberano que cumpliré las obligaciones del cargo de concejal con total lealtad, hasta que este pueblo inicie los procesos constituyentes y hasta que las leyes fundamentales se encuentren bajo control de la ciudadanía, y no bajo el control de las élites económicas y políticas.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ongi etorriak biak Osoko Bilkura Areto honetara.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Os doy la bienvenida a ambos a este Salón de Plenos.

**HIRU.- BIDEZKOA, BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA: 2017KO EKAINAREN 27KOA OHIKOA ETA 2017KO EKAINAREN 27KOA EZ OHIKOA.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2017ko ekainaren 27koa ohikoa eta 2017ko ekainaren 27koa ez ohikoa.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Gu euskaraz aritzen gara baina itzulpenaren aldetik hainbat akats daude. Eskatzen duguna da genero aldetik gaztelaniazko zatian zuzenketak egitea.

BOZKETA egin ostean.

USALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, Mintegi Egileor andrea (EH Bildu) eta Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea) karguuztea, berezko eskaerari, emanda, **2017ko ekainaren 27koa ohiko** eta **2017ko ekainaren 27koa ez ohiko aktak ONARTZEN DITU**.

**TRES.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES CORRESPONDIENTES A LA ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA DE 27 DE JUNIO, AMBAS DE 2017.**

DADA LECTURA a los borradores de las actas de las sesiones anteriores, correspondientes a la Ordinaria y Extraordinaria de 27 de Junio, ambas de 2017.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Nosotras y nosotros nos expresamos en euskera, pero hay varios errores en la traducción. Solicitamos que se hagan las correcciones pertinentes relacionadas con el género en la parte que está en castellano.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, dado el cese, a petición propia, de los/as Concejales Sra. Mintegi Egileor (EH Bildu) y Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea), **APRUEBA** las **Actas** de los Plenos Ordinario y Extraordinario de **27 de Junio**, **ambas de 2017**.

**LAU.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA.**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Betiko lez, eskuragarri izan dituzue eta dauzkazue Idazkaritza Nagusian espediente guztiak.

**CUATRO.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS.**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como siempre, todos los expedientes han estado disponibles y siguen estándolo en la Secretaría General.

Beharbada aipamenen bat egingo nuke azken asteburu honetan gure udaltzain bati gertaturiko ezbeharraz. Pentsatzen dut denon elkartasuna adierazteko unea izan daitekeela.

Jaietako azken igandean arazo bat egon zen bere lanaren bilakaeran eta lesio bat jasan zuen ezustean; lesio horren ondorioz zuzenean Galdakaoko ospitalera eraman zuten eta bertan gaua pasatu zuen; hasieran konortea galduta eta gerora berreskuratu zuen. Alta eman zioten atzo eta ondo dago, baina uste dut pleno honetan merezi duela aipamen bat.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

Me gustaría mencionar el accidente que ha sufrido uno de nuestros agentes de la Policía Municipal durante este fin de semana. Creo que puede ser un momento oportuno para que todos mostremos nuestra solidaridad.

Durante el último domingo de fiestas, ocurrió un problema en el transcurso de su trabajo y sufrió una lesión inesperada. Como consecuencia de esa lesión, tuvieron que trasladarlo directamente al hospital de Galdakao y pasó allí la noche. En un primer momento estuvo inconsciente, y después recuperó la consciencia. Le dieron ayer el alta y se encuentra bien; sin embargo, creo que se merece que se le mencione en este pleno.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**BOST.- BIDEZKOA BALITZ, BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA ALDAKETAREN ONARTZEA. (HIRIGINTZA, OBRAK ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2017KO URRIAREN 4KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Batzordearen irizpena, 2017ko urriaren 4koa, eta honako hau dioena:

"*Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantzan aldaketak egiteko espedienteari hasiera eman zaio.*

*Ildo horretan, udal zerbitzu teknikoek egindako proposamena idatzi honi atxikita dagoen ordenantzako testuan dago barneratuta.*

*EAJ/PNV (2) eta PSE-EE (PSOE) (1) udal taldeen aldeko botoekin, eta EH Bildu (2) eta SQ-2D (1) udal taldeetako ordezkarien abstentzioarekin, honako proposamen hau luzatzen da Osoko Bilkurari*

***ERABAKIA***

***LEHENA.****- Bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen udal ordenantzako aldaketei hasierako onespena ematea.*

**CINCO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS Y VELADORES EN LA VÍA PÚBLICA. (DICTAMINADA POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO, OBRAS Y VIVIENDA DE 4 DE OCTUBRE DE 2017).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Vivienda en sesión de 4 de Octubre de 2017, del tenor literal siguiente:

"*Visto el expediente incoado para la modificación de la ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública.*

*Vista la propuesta realizada por los servicios técnicos municipales, que se incluye en el texto de la ordenanza que se adjunta al presente.*

*Con el voto favorable de los representantes de EAJ/PNV (2) y PSE-EE (PSOE) (1), y la abstención de los representantes de EH Bildu (2) y SQ-2D (1), se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente*

***ACUERDO***

***PRIMERO.****- Aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza municipal reguladora de la instalación de veladores y terrazas en la vía pública.*

***BIGARRENA.***- *Jendaurrean erakutsiko da eta entzunaldia ere egingo da interesatuekin, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar (30) egunez jarriko den iragarkiaren bidez, halaxe ezartzen baitu toki araubidea arautzen duten oinarrien 7/1985 Legearen 49. artikuluak erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.*

***HIRUGARRENA.***- *Erreklamazioak eta iradokizunak ebatzi ondoren, baldin eta baleude, behin betiko onarpen akordioa hartuko da eta testu osoa argitaratuko da, betiere, gorago aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz.*

*Ordenantzaren hasierako onarpenari ez bazaio erreklamaziorik aurkezten jendaurreko epe barruan, behin-behineko akordioa izan dena behin betiko bilakatuko da.*

***BOTO PARTIKULARRA***

*EH Bilduk boto partikularra aurkeztu dio proposamenari, eta, haren bidez eskatu du 7.9. artikuluaren erredakzioa hauxe izatea:*

> *Gehienezko muga hortaz gain, jarri nahi den instalazioa jarduera nagusia hartzen duen establezimenduaren fatxadaren luzeratik irteten bada, eta terraza parean dagoen lokalen bat ikustea oztopatzen badu, urtero egiaztatu behar izango da lokal horietako titularrak horrekin ados daudela.*

*Horrez gain, koalizioak eskatu du 7.10.artikulua sortzeko testu honekin:*

> *Ostalaritza lokaleko arduradunek ez badute terraza lokalaren parean jartzen, urtero egiaztatu behar izango dute terraza parean dauden beste lokaletako titularrak ados daudela terrazaren kokalekuarekin."*

* Udal Arkitektoa, <u>**Zorrakin Perez jaunak**</u>: Gaur egun indarrean dugun terrazei buruzko ordenantza 2012koa da. Urte horretan, ordenantza horrek aldaketa handia ekarri zuen horrelako instalazioak arautzen zituzten aurreko ordenantzekin alderatuta, eta elementu berritzailea izan da bide publikoa okupatzeko irizpideak aplikatzean, hiriko espazioaren kalitatea hobetu eta espazioa bera aberaste aldera.

***SEGUNDO.***- *Someterla a información pública y audiencia a los interesados, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, durante el plazo de treinta (30) días, según lo establecido en el Artº. 49 de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.*

***TERCERO.***- *Una vez resueltas las reclamaciones y sugerencias, si las hubiere, se adoptará acuerdo de aprobación definitiva y se procederá a la publicación íntegra del texto, de conformidad con lo dispuesto en el Artº. 70.2 de la Ley 7/85, anteriormente mencionada.*

*En el supuesto de que no se presenten reclamaciones en relación con la aprobación inicial de la Ordenanza en el plazo de información pública, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.*

***VOTO PARTICULAR***

*EH Bildu presenta el voto particular a la propuesta presentada, en el sentido de que el artículo 7.9 quede redactado de la siguiente manera:*

> *Si al margen de ese tope máximo, la instalación proyectada rebasa la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, se deberá acreditar anualmente la conformidad expresa de las personas titulares de los demás locales a los que pretenda dar frente, siempre que dificulte la visibilidad de alguno de esos locales.*

*Y se cree el artículo 7.10 con la siguiente redacción:*

> *En cualquier caso, cuando la terraza no se emplace frente al propio establecimiento hostelero, deberá de acreditarse anualmente la conformidad expresa de las personas titulares de los demás locales a los que pretenda dar frente."*

* Arquitecto Municipal, <u>**Zorrakin Perez jaunak**</u>: La ordenanza de terrazas que actualmente tenemos en vigor es del año 2012. Esta ordenanza supuso en el 2012 un cambio importante en relación con ordenanzas anteriores que regulaban este tipo de instalaciones, y ha supuesto un elemento innovador en la aplicación de criterios para la ocupación de la vía pública, con el fin de mejorar la calidad y enriquecer el espacio urbano.

Bere garaian, zenbait berritasun txertatu ziren egungo ordenantzaren bitartez. Adibidez, nabarmentzekoa da terrazen ordenamendurako irizpideak finkatu zirela hiriko espazio motaren arabera, eta horrek aukera eman zuen estalpe iraunkorrak jartzeko, lurzoruari ainguratuta. Orobat, altzari-elementu berrien ordenamendurako irizpideak finkatu ziren; esate baterako, upelak, mahai altuak, eta abar. Hala, ikusi dugu horrelako elementuak sartzen joan direla azken urteotan.

Aukera eman zuen interesdunek lorategiz hornitutako eremuak aldatzeko, terrazak espazio libreetan eta plazetan errazago instalatzeko, baldin eta zolaketa txikiagatik berez ezin bazen horrelako instalaziorik egin, hasiera batean. Orobat, aukera eman zuen aparkatzeko tokietan terrazak eta mahaitxoak jartzeko aldi batean, baldin eta espazio horietan koherentea bazen hirigintzako eta mugikortasuneko baldintzekin. Halaber, terrazaren espazioa berotzeko sistema bat ere aurreikusi zen legeekin bat etorrita, eta energia fosilak erabiltzeko aukera ere aurreikusi zen.

Durangon, gaur egun, 129 ostalaritza-lokal inguru daude, eta horietatik 87an daude terrazak edo mahaitxoak. Ordenantza indarrean egon den aldian, 2012tik hona, hobetu beharreko zenbait kontu hauteman dira, hala herritarrek, ostalariek eta merkatarien elkarteak eskatuta nola Udaleko Bulego Teknikoak ikusita. Hain zuzen ere, aplikazio-arazoetako batzuk interpretazioaren bidetik konpondu dira; beste batzuen eraginez, berriz, ordenantzako edukiak berariaz aldatu behar dira, terrazen instalazioa malgutzeko. Irizpide berriak Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza batzordean eztabaidatu dira, eta irizpena eman da.

Ondorioz, hona hemen zer aldaketa nagusi egin diren ordenantzaren egituran:

- ✓ Baimena zuzenean berritzea urtero. Aurrez baimendutako terrazek baimena urtero berritzeko administrazio-izapidea erraztu egin da; hartara, titularrak ez du adi egon behar izango baimen bera urtero eskatzeko. Udaleko kudeaketa orain baino errazagoa eta sinpleagoa izango da.

- ✓ Termino batzuk argitzea, ordenantza lehen baino errazago irakurri eta interpretatzeko;

La ordenanza actual, en su momento, incorporó varias novedades entre las que destacarían, por ejemplo, que establecía criterios de ordenación de terrazas en función de las diferentes tipologías de espacios urbanos posibilitaba la instalación de cubiertas estables con anclaje al suelo, y establecía criterios de ordenación de nuevos elementos de mobiliario como barriles, mesas altas, etc. que hemos ido viendo cómo se han incorporando en los últimos años.

Posibilitaba la modificación de zonas ajardinadas a cargo de la persona interesada para facilitar la instalación de terrazas en espacios libres y plazas que por su escasa pavimentación no permitían o no admitían, en origen, una instalación de este tipo; abría la posibilidad de la ocupación temporal de plazas de aparcamiento con terrazas y veladores en aquellos espacios donde fuera coherente con las condiciones urbanísticas y de movilidad; y preveía un sistema, dentro de la legalidad, para calefactar el espacio de la terraza, previendo la utilización de energías fósiles para este cometido.

En Durango, en estos momentos, tenemos unos 129 locales de hostelería de los cuales 87 disponen de terraza-velador. Durante este periodo de la aplicación de la ordenanza, desde el 2012, se han detectado varias cuestiones mejorables, bien a petición de la ciudadanía, de la hostelería, de la asociación de comerciantes, o bien por la propia Oficina Técnica municipal. De hecho, algunos problemas de aplicación se han conseguido solucionar por la vía interpretativa; otros, en cambio, requieren de una modificación expresa de los contenidos de la ordenanza para flexibilizar la instalación de las terrazas. Estos nuevos criterios han sido debatidos y dictaminados en la comisión de Urbanismo, Obras y Vivienda.

Esta modificación de la ordenanza conlleva los siguientes cambios principales en su estructura:

- ✓ Renovación anual automática de la autorización. Se simplifica el trámite administrativo para la renovación de la autorización anual de las terrazas autorizadas anteriormente, de manera que la persona titular no debe de estar pendiente de solicitar anualmente la misma autorización. Facilita y simplifica la gestión municipal.

- ✓ Aclaración de algunos términos para facilitar la lectura e interpretación de la ordenanza y

eta ordenantza aplikatu den aldian hauteman diren disfuntzioak zuzentzea.

- ✓ Aplikatu diren irizpideei estaldura eta batasuna ematea, Hirigintza batzordeetan ontzat eman direnak.

- ✓ Hizkera berrikustea generoari eta desgaitasunei begira.

Ordenantzaren aldaketa dela eta, hona hemen zein diren aldaketa nagusiak instalazioaren baldintza teknikoekin lotuta:

- ✓ Beroa erradiazioaren bidez emateko instalazioak ipintzea terrazetan.

- ✓ Giroa aspertsioz edo baporizazioz hozteko hornidurak instalatzea.

- ✓ Erabilera publikokoak diren baina aldi berean jabetza pribatukoak diren lurzoruetan, ez da lizentziarik behar izango gehienez ere hiru upel edo mahai altu jartzeko. Salbuespen hori bide publikoan baimendu litekeen terrazarekin bateragarria da, eta horren osagarri ere bai.

- ✓ Baztertu egin da lurzoru pribatuetan egitura iraunkorrak instalatzeko debekua, baldin eta titularrek baimena ematen badute.

- ✓ Perimetroko babesgarriak jar daitezke, gehienez ere 1,90 m-ko garaieraraino.

- ✓ Hiru denboraldi finkatu dira: urteko denboraldia, udako tarteko denboraldi posiblea, eta neguko tarteko denboraldi posiblea.

- ✓ Baliteke oinezkoentzako eremuak edo oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako eremuak finkatzea ordutegi edo data jakin batzuetan, eta gerta daiteke halakoetan ordutegi eta aldi mugatuagoak izango lituzketen baimenak ematea; hala izan daiteke, adibidez, Zumalakarregi kalean edo Ezkurdin.

Aldaketa honetan, hiriko espazioen aurreko kategorizazioari eutsi zaio; alegia, ibilgailuen zirkulazioa duten kaleak, oinezkoentzako kaleak, oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleak, espazio libreak eta enparantzak, balio bereziko espazioak

corregir disfunciones detectadas durante el período de aplicación de esta ordenanza.

- ✓ Dar cobertura y unidad a los criterios que se han venido aplicando y que se han visto de manera favorable en las comisiones de Urbanismo.

- ✓ Revisión del lenguaje de género y en materia de discapacidades.

Esta modificación de la ordenanza conlleva como cambios reseñables relativos a condiciones técnicas de la instalación, los siguientes que merecen mencionar:

- ✓ Incorporación de instalaciones de calor por radiación en las terrazas.

- ✓ Incorporación de dotaciones de refrigeración del ambiente por aspersión o vaporización.

- ✓ No se requerirá licencia en suelos de uso público pero de propiedad privada de las instalaciones de un máximo de hasta 3 barriles o mesas altas. Esta exención es compatible y complementaria con la terraza que pudiera autorizarse en la vía pública.

- ✓ Se elimina la prohibición de instalar estructuras estables en suelos privados, siempre que se disponga de los correspondientes permisos de sus titulares.

- ✓ Se autorizan protecciones perimetrales elevables hasta 1,90 metros de altura.

- ✓ Se establecen tres tipos de temporadas: una temporada anual, una posible temporada media de verano y una posible temporada media de invierno.

- ✓ Podrán otorgarse autorizaciones con horarios y periodos más restringidos en zonas peatonales o de coexistencia que así se establezcan en horarios o fechas delimitados, por el ejemplo, en la calle Zumalakarregi en Ezkurdi.

La modificación que se trae mantiene la categorización de los espacios urbanos tal y como estaban anteriormente; es decir, calles con circulación rodada, calles peatonales, calles de coexistencia, espacios libres y plazas, espacios de va-

eta arkupeak. Nolanahi ere, doikuntza txiki batzuk egin dira; esate baterako, Bartolome Ertzilla kalea oinezkoentzako kaletzat joko da, oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaletzat jo beharrean. Horrenbestez, bertan instalatzen diren terrazek ez dute izango oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleetako instalazio-ordutegiaren mugarik.

Terrazak ipini eta kentzeko ordutegia bere horretan utzi da, berezitasun bakar batekin: oinezkoentzako eremura sartzeko ordutegiaren erregulazioa aldatzen ez den bitartean, ostalaritzako terrazak 12:00etatik aurrera jarri ahal izango dira larunbatetan.

Zehapen-araubidearen harira, gauzatxo bat aldatu dugu: terrazak eta mahaitxoak baimendutako ordutegitik kanpo jarrita egotea arau-hauste larritzat joko da.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Zorrakin jaunak aditzera eman digunez, eguneratu nahi dugun ordenantza 2012koa da, eta gaur egun, 2017an, ia 100 ostalaritza-establezimendutan daude terrazak eta mahaitxoak. Arazo guztiak ezin dira konpondu egungo ordenantza interpretatuz; badira egin beharreko zenbait aldaketa, eta Alderdi Popularra bat dator horiekin. Bestalde, egoera berriak sortu dira sistemak modernizatu izanagatik, baina funtsean, aldaketa horiekin baimena zuzenean berritzeko aukera hobetuko dugu.

Hobekuntza handia da, eta mesedegarria izango zaie aurrez baimena zeukaten ostalaritzako merkataritzari eta aurreko urteetan aztertutako egoera berak aztertu behar zituztenei. Aldeko botoa emango dugu.

*1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Udal-Arkitektoak azaldu bezala, aldaketen helburua ordenantza hobetzea da. Izan ere, bost urteko indarraldiaren ostean, ematen du zenbait doikuntza eta aldaketa egin behar direla, maila teknikoan ez ezik, ostalaritzari begira ere bai.

lor singular y soportales pero con pequeños reajustes; por ejemplo, la calles Bartolome Ertzilla pasa a tener un carácter de calle peatonal en lugar de coexistencia. Esto permitirá la instalación de terrazas sin restricción del horario de instalación en las calles de coexistencia.

El horario de colocación y retirada de las terrazas se mantiene, pero con la peculiaridad de que en tanto que no se modifique la regulación del horario de acceso a la zona peatonal se permitirá la colocación de terrazas de hostelería los sábados a partir de las 12:00h.

En cuanto al régimen sancionador, hemos modificado una pequeña cosa; se tipifica como infracción grave la permanencia de terrazas y veladores fuera del horario autorizado.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Como nos ha informado el señor Zorrakin, esta ordenanza que queremos actualizar es del año 2012 y hoy, en al año 2017, son casi 100 los establecimientos hosteleros con terrazas y veladores. No todas las cuestiones se solventan con interpretar la actual ordenanza, hay cambios necesarios y desde el Partido Popular los apoyamos. Además hay nuevas situaciones por la modernización de los sistemas y demás, pero fundamentalmente con las modificaciones mejoramos en la renovación actual automática de la autorización.

Esto es una mejora importante que favorece al comercio hostelero que ya tenía la autorización, como a la parte de quien tenía que estudiar otra vez las situaciones ya estudiadas de años anteriores. Vamos a votar a favor.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Tal y como ha explicado el Arquitecto municipal, con esta modificación de la ordenanza lo que queremos es mejorarla, porque se ve que tras cinco años que lleva en vigor se han detectado determinados reajustes y reformas necesarias; no solo a nivel técnico, sino también por parte de la hostelería.

Ordenantza hau prestatu zen espazioa arautzeko eta baldintza jakin batzuk finkatzeko beharra sortu zelako, terrazak eta mahaitxoak ipintze aldera. Durangon, 129 ostalaritza-enpresa daude, eta familia asko hortik bizi dira; horregatik ongi deritzogu aldaketa horiek egiteari, egunerokoaren mesedetan.

Esta ordenanza surge por la necesidad de regular el espacio y delimitar con unas condiciones para que se puedan establecer estas terrazas y veladores. En Durango tenemos un total de 129 empresas hosteleras, y son muchas las familias que viven de ello; por eso nos parece bien que estas mejoras ayuden a que el día a día sea mejor.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Bat gatoz proposatu diren hobekuntzekin, baina zertxobait harago joan nahi dugu. Lanean jarraitu behar dugu espazio partekatuak izateko, dendek, ostalaritzak eta herritarrek partekatutako espazioak. Ez dezagun ahaztu okupatzen ditugun espazio publiko horiek herritarrekin ere partekatu behar direla, denok elkarrekin erabili ahal izateko.

*Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Nosotros estamos de acuerdo con las mejoras que se han propuesto, pero queremos ir un poco más allá; luego hay que seguir peleando por tener espacios de convivencia, de coexistencia entre los comercios, la hostelería y la ciudadanía. No nos olvidemos que esos espacios públicos que ocupamos tienen que coexistir con los ciudadanos para que esos espacios se puedan disfrutar conjuntamente.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Gure aldetik esan behar dugu ikusten genuela beharrezkoa zela ordenantza berraztertzea, gero eta terraza gehiago ari direlako jartzen, terrazak gero eta garrantzi gehiago hartzen ari direlako ostalaritza jardueretan eta ondorioz, eta errealitatea ikusita, beharrezkoa zen aldaketa hau. Ados gaude mota honetako zerbitzuak bultzatzearekin zerbitzu hiri batean, eta ondo dago ekimen ekonomiko hauek sustatzea, baina betiere ahaztu barik gune publiko horietan beste jarduera batzuk ere egiten direla eta, beraz, oreka batzuk topatu behar direla. Beraz, guretzat oreka bat topatzea oso garrantzitsua da eta ordenantza bat onartzea baino garrantzitsuagoa da orain arte egin ez den gauza bat egitea; hau da, ordenantzan jartzen duena egiten den ala ez konprobatzea.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Por nuestra parte hemos de decir que nos parecía necesario revisar esta ordenanza. Cada vez se ponen más terrazas, cada vez tienen mayor importancia en la actividad hostelera, y vista la realidad, esta modificación era necesaria. Estamos de acuerdo con que se impulsen este tipo de cosas en una ciudad de servicios, y nos parece adecuado fomentar esas iniciativas económicas, pero no debemos olvidar que en esos espacios públicos también se llevan a cabo otras actividades, y que, por tanto, debe buscarse un equilibrio. Por consiguiente, creemos que buscar un equilibrio es crucial, y que hay algo más importante que aprobar una ordenanza, algo que no se ha hecho hasta ahora: comprobar si lo recogido en la ordenanza se cumple o no.

Hau esaten dugu ikusi izan dugulako indarrean zegoen ordenantzarekin hainbatetan ez zela betetzen bertan jasota zegoena eta askotan terrazak neurritik kanpo jarri direla, hainbat gune publikoetan sekulako okupazioa egon dela eta ez dela ordenantza betearazi.

Lo decimos porque hemos visto que la ordenanza vigente no se cumple en muchas ocasiones, que no se cumplía lo establecido allí. Las terrazas excedían las medidas correspondientes muchas veces, ha existido una ocupación excesiva en varios espacios públicos, y no se ha hecho cumplir la ordenanza.

Hau guztia kontuan izanda, esan behar dugu boto partikular bat aurkeztu dugula ordenantza honetan; ikusten dugulako bi interes ekonomikoen artean talka dagoenean ez dela ondo konpondu egoera hori eta diskriminazio egoera bat egon daitekeelako gaur onartu nahi dugun ordenantzan.

Teniendo en cuenta todo eso, vamos a presentar un voto particular en esta ordenanza. Vemos que, cuando dos intereses económicos chocan, la situación no se ha resuelto adecuadamente, y que puede surgir una situación de discriminación en la ordenanza que queremos aprobar hoy.

Azalpen txiki bat emango dugu: ostalaritzako jarduera baten jabeak baimena eskatzen duenean terraza bat ipintzeko ordenantzan jartzen dena aplikatzen da; hau da, bere lokalaren parean jartzea eta fatxadaren neurrikoa izatea. Irizpide hau ezin denean aplikatu, salbuespena ematen da eta batzuetan ondoko lokalaren zati bat okupatzen da. Ondoko lokal hori ostalaritzako jarduerakoa baldin bada, baimena eskatzen zaio terraza ipini ahal izateko; baina beste jarduera ekonomiko batekoa bada, ez zaio baimenik eskatzen. Eta guk, hemen ikusten dugu diskriminazioa.

Eta eragozpenak egon daitezke, bai irisgarritasunaren aldetik edo eskaparate bat estaltzen delako edo bidea oztopatzen delako... Are gehiago, jartzen diren terrazak estalpe iraunkorra baldin badaukate, edozein dela kaltetua, derrigorrezkoa da baimena eskatzea; baina estalpea ez bada iraunkorra, orduan ez. Eta guretzat kalteak, iraunkorra izan edo ez, berdinak izan daitezke.

Beraz, boto partikularra aurkeztu dugu eta bertan eskatzen dugu, edozein kasutan, edozein jarduera motari eragozpena sortuz gero beharrezkoa izatea jarduera horien jabeen baimena. Uste dugu horrela saihesten direla interpretazio subjektiboak.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure aldeko bozka izango du puntu honek. Garrantzia eman nahi diogu ordenantzak helburu duen aldaketa nagusiari; hau da, erabiltzaileentzat eta langileentzat lizentzia eta tasen inguruko lanak edo paperak arinago edo egokiago batean aurrera eramateari. Espero dugu gaur puntu hori, behintzat, martxan jartzea.

* 1. Alteordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Gatazkak sor daitezkeela uste dugu, eta horretarako dugu ordenantza. Orekari eutsi behar zaiola esaten denean, argi dago oreka hori enpresek terrazak eta mahaitxoak jartzeko eskubide horren eta herritarrek espazio publikoa erabiltzeko ahalmenaren artekoa dela. Nire ustez, hau da tresnarik egokiena, eta horregatik aldatu dugu, ezin hobea izan dadin.

Vamos a ofrecer una breve explicación: cuando el propietario de una actividad hostelera solicita autorización para colocar una terraza, se aplica lo establecido en la ordenanza; es decir, colocarla frente al local y ajustarla a las medidas de la fachada. Cuando no puede aplicarse ese criterio, se hace una excepción y se ocupa a veces parte del local contiguo. Si en ese local contiguo se realiza una actividad hostelera, se le solicita autorización para poder instalar la terraza, pero si se trata de otro tipo de actividad económica, no se pide autorización. Y ahí vemos una discriminación.

El caso es que pueden surgir impedimentos, y pueden tener relación con la accesibilidad, con ocultar un escaparate, con obstaculizar el camino... Es más, si la terraza a instalar se va a cubrir de forma permanente, debe solicitarse autorización sea quien sea el afectado; en cambio, si no se va a cubrir de forma permanente, no es necesario solicitar autorización. Y para nosotros el perjuicio puede ser el mismo, sea permanente o no.

Así pues, presentamos un voto particular, según el cual pedimos que siempre se solicite autorización si se provoca algún impedimento a cualquier tipo de actividad, en todos los casos. En nuestra opinión, así se evitarán interpretaciones subjetivas.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Votaremos a favor de ese punto. Queremos subrayar la modificación principal objeto de esta ordenanza: tramitar más rápido y de forma más adecuada que ahora las tareas o documentos necesarios relacionados con las licencias, tanto para los usuarios como para los trabajadores. Esperamos que al menos ese punto se ponga en práctica.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Entendemos que pueden surgir conflictos, y para eso tenemos esta ordenanza; cuando se habla de que hay que mantener un equilibrio es claro que tiene que ser entre ese derecho que tienen esas empresas a poder instalar terrazas y veladores y que la población pueda hacer uso del espacio público. Yo creo que este es el instrumento, y por ello lo modificamos, para que sea el idóneo.

Gehiegikeriei begira, orobat, tresna aproposa dela pentsatzen dut, aukeretako bat taberna batek hartzen duen espazioa markatzea baita.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Lehen ahaztu zait esatea, Arkitektoari galdetzeko zerbait dugu. Ordenantza bere osotasunean aztertu dugunean ikusi dugu arautzen dela figura bat: "espacio singular" figura. Uste dugu gune horretan Tabira, adibidez, sartuta egon beharko litzatekeela eta ez dago. Ez dakigu zein irizpide erabiltzen diren gune berezi horretan sartzeko edo ez. Beraz, hori da gure galdera; zeintzuk diren irizpideak, eta gure proposamena da Tabira ere sartzea gune horretan.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Guk uste dugu ordenantza honekin herriaren interes orokorra bermatzen dela, eta, horregatik, aldeko bozka emango diogu.

* Udal Arkitektoa **Zorrakin Perez jaunak**: Guneen sailkapenak plano baten agertzen dira, ordenantzarekin batera argitaratu behar dena; eta Tabirako elizaren ingurua sailkapen horretatik kanpo dago, ez dagoelako aukerarik terrazarik jartzeko. Egia da Tabira parkeko izkina batean ostalaritza lokal bi daudela eta gune hori espazio libre moduan zehazten dela. Espazio singularra uste dugu elizatik hurbilen dagoen espazio dela.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Lehenengo boto partikularra bozkatuko dugu, eta, ostean, irizpena.

Euskal Herria Bildu-k proposatutako boto partikularra

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

En cuanto al abuso que se pueda dar, también creo que éste es el instrumento, porque una de las opciones que tenemos es que se marque la zona que ese bar pueda ocupar.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Antes he olvidado decir que tenemos una pregunta para el Arquitecto. Al analizar la ordenanza al completo, hemos visto que se ha regulado una figura denominada *espacio singular*. En nuestra opinión, Tabira debería ser uno de esos espacios, pero no se ha incluido. No sabemos qué criterios se emplean para decidir cuáles son los espacios singulares. Por lo tanto, esa es nuestra pregunta, cuáles son los criterios, y proponemos que Tabira también se incluya dentro de esos espacios.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Opinamos que a través de esta ordenanza se garantiza el interés general del pueblo, por lo que votaremos a favor.

* Arquitecto Municipal **Sr. Zorrakin Perez**: La clasificación de los espacios está recogida en un plano que se publicará junto con la ordenanza. El entorno de la iglesia de Tabira queda fuera de esa clasificación porque no se pueden instalar terrazas. Es cierto que en una esquina del parque de Tabira hay dos locales hosteleros y que ese espacio se ha definido como libre. Creemos que el espacio singular es el que queda más cerca de la iglesia.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En primer lugar, realizaremos la votación sobre el voto particular, y después, sobre el dictamen.

Voto Particular propuesto por Euskal Herria Bildu

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Votos en contra: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

Beraz, gehiengoak, **UKO EGINDA** geratuz.

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADO**, por mayoría.

Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Batzordearen irizpena

- Aldeko botoak: HAMALAU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Herriaren Eskubidea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: ZAZPI, 7 Euskal Herria Bildu.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Vivienda

- Votos a favor: CATORCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 de Herriaren Eskubidea, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Votos en contra: SIETE, 7 de Euskal Herria Bildu.
- Abstenciones: NINGUNA.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiangoaren botoarekin, hauxe erabaki du:

LEHENA.- **Bide Publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen Udal Ordenantzako ALDAKETEI HASIERAKO onespena ematea**.

BIGARRENA.- **Jendaurrean erakutsiko da** eta entzunaldia ere egingo da interesatuekin, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, **HOGEITA HAMAR (30) EGUNEZ** jarriko den iragarkiaren bidez, halaxe ezartzen baitu toki araubidea arautzen duten oinarrien 7/1985 Legearen 49. artikuluak erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Oharrak ebatzi ondoren, baldin eta baleude, behin betiko onarpen akordioa hartuko da eta testu osoa argitaratuko da, betiere, gorago aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Ordenatzaren hasierako onarpenari erreklamaziorik aurkeztu ezean jendaurreko epe barruan, behin behineko akordioa behin betiko bilatuko da.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

PRIMERO.- Aprobar **INICIALMENTE** la **MODIFICACIÓN** de la **Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública.**

SEGUNDO.- Someterla a **información pública** y audiencia a los interesados, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, durante el plazo de **TREINTA (30) DÍAS**, según lo establece el Artº. 49 de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

TERCERO.- Una vez resueltas las observaciones, si las hubiere, se adoptará acuerdo de aprobación definitiva y se procederá a la publicación íntegra de su texto, de conformidad con lo dispuesto en el Artº. 70.2 de la Ley 7/85, anteriormente mencionada.

En el supuesto de que no se presenten reclamaciones en relación con la aprobación inicial de la Ordenanza en el plazo de información pública, se entenderá definitivamente adoptado el Acuerdo hasta entonces provisional.

**SEI.- BIDEZKOA BALITZ, 2018KO. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK HASIERA BATEAN ONARTZEA. (KONTU BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENAREN DUENA 2017KO URRIAREN 18KOA).**

Kontu Batzorde Bereziak, iragan urriaren 18an, irizpena egin zuen tokiko zergen kudeaketaren gaineko espedienteari buruz eta prezio publikoen diru-bilketa eta ikusatzearen gainean, betiere, toki ogasunak arautzen dituen legearen 16 eta 17. artikuluek ezartzen dutena aintzat hartuta eta, halaber, kontuan hartuta honako lege-testuek ezarritakoa: uztailaren 4ko, 5/89 Foru Arauaren 15. artikulua eta hurrengoak eta toki araubide arautzen duten oinarrien legearen 49. artikulua, betiere, 2018. urterako ordenantza fiskalak aldatzeko.

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: 2018ko ordenantza fiskalen zirriborroa 2017ko irailaren 25eko Kontu Batzorde Berezian aurkeztu zen. Planteamendua izan zen 2017ko ordenantzako tarifak %50 igotzea. Zuzenketak aurkezteko epea urriaren 16ra arte luzatu zen. Urriaren 16 eta 17an zuzenketak aztertu ziren, eta urriaren 18ko Kontu Batzorde Bereziak irizpena hartu zuen osoko bilkurara eramateko.

Herriaren Eskubideak osotasunerako emendakin bat eta 9 zuzenketa partzial aurkeztu zituen.

EH Bilduk 11 zuzenketa partzial eta bi proposamen orokor.

Gobernu Taldeak hiru zuzenketa partzial aurkeztu zituen.

**SEIS.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES Y PRECIOS PÚBLICOS PARA EL EJERCICIO 2018. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS DE 18 DE OCTUBRE DE 2017).**

Visto el dictamen elaborado el pasado día 18 de Octubre por la Comisión Especial de Cuentas, respecto al expediente de Tributos Locales, su gestión, recaudación e inspección y Precios Públicos, a tenor de lo dispuesto en los Artºs. 16 y 17 de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, en concordancia con el Artº. 15 y ss. De la Norma Foral 5/89, de 4 de Julio, de Hacienda Forales y, conforme lo establece el Artº. 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, para la modificación de las Ordenanzas Fiscales de cara al ejercicio 2018.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: El borrador de las ordenanzas fiscales de 2018 se presentó en la Comisión Especial de Cuentas celebrada el 25 de septiembre de 2017. El planteamiento fue incrementar un 50 % las tarifas de las ordenanzas de 2017. El plazo para presentar enmiendas se prolongó hasta el 16 de octubre. Las enmiendas se examinaron el 16 y el 17 de octubre, y la Comisión Especial de Cuentas emitió dictamen el 18 de octubre para llevarlo al pleno.

Herriaren Eskubidea presentó una enmienda a la totalidad y nueve enmiendas parciales.

EH Bildu presentó 11 enmiendas parciales y dos propuestas generales.

El Equipo de Gobierno presentó tres enmiendas parciales.

**HERRIAREN ESKUBIDEA**

**OSOTASUNEKO ZUZENKETA DURANGOKO UDALAREN 2018RAKO ORDENANTZA FISKALEN ZIRRIBORROARI**

Tasa eta zerga guztiak %1,5 igotzeko proposamena dela eta, herritarrek bizi duten egoera plazaratu nahi dugu. Pentsioak %0,25 igo dira, eta soldatak izoztu edo jaitsi egin dira. Horrexegatik pentsatzen dugu Durangoko Udalak udal tasa eta zergak izozten jarraitu behar duela. Hau guztiagatik, hauxe proposatzen dugu:

**HERRIAREN ESKUBIDEA**

**ENMIENDA A LA TOTALIDAD DEL BORRADOR DE LAS ORDENANZAS PARA 2018 DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO**

Ante la propuesta de la subida de todas las tasas e impuestos de 1,5%, solo podemos traer a colación la situación actual de la ciudadanía. Frente a una subida del 0,25% de las pensiones, o la congelación o bajada de los sueldos, creemos que el ayuntamiento debe seguir con la congelación de las tasas e impuestos municipales. Por ello, proponemos:

- Prezio publikoak, tasak eta zergak bere horretan mantentzea.

- Mantener de manera general los precios públicos, tasas e impuestos.

| | |
|---|---|
| ERRETIRATUA<br>RETIRADA | |

| | | |
|---|---|---|
| ALDEKO BOTOAK<br>VOTOS A FAVOR | 1 | HE (1) |
| KONTRAKO BOTOAK<br>VOTOS EN CONTRA | 3 | EAJ-PNV (2) PSE-EE (PSOE)(1) |
| ABSTENTZIOAK<br>ABSTENCIONES | 3 | EHB (2) PP (1) |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ONARTUA<br>ACEPTADA | | | EZETSIA<br>RECHAZADA | x |

| | |
|---|---|
| Osoko Bilkurarako mantentzen da<br>Se mantiene para Pleno | x |

**ZUZENKETAK HURRENGO**
**ENMIENDAS PARCIALES**

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D) UDAL TALDEAK 2018KO ORDENANTZA FISKALEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK HURRENGO ZUZENKETAK TASEI**

**ENMIENDAS PARCIALES PRESENTADAS POR EL GRUPO MUNICIPAL HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D), A LAS ORDENANZAS FISCALES 2018. ENMIENDAS A LAS TASAS**

**1. ZERBITZU PUBLIKO ETA JARDUEREN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO ZUZENKETA**

**1.- ENMIENDA DE MODIFICACIÓN A LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES**

%100eko hobaria tasa guztietan oinarrizko errenta (IPREMen %80a) edo gutxiago jasotzen duten familia unitateentzat.

Para unidades familiares con ingresos iguales o inferiores a la Renta Básica (80% del IPREM), una bonificación del 100% en todas las tasas.

| | |
|---|---|
| ERRETIRATUA<br>RETIRADA | |

| | | |
|---|---|---|
| ALDEKO BOTOAK<br>VOTOS A FAVOR | 3 | HE (1) EHB (2) |
| KONTRAKO BOTOAK<br>VOTOS EN CONTRA | 3 | EAJ-PNV (2) PSE-EE (PSOE) (1) |
| ABSTENTZIOAK<br>ABSTENCIONES | 1 | PP (1) |

Bigarren bozketa bat burutu da, emaitza bera suertatu delarik. Horrela Presidentearen kalitate-bozkaren bitartez, zuzenketa ezetsi egiten da.

Se procede a realizar una segunda votación, con el mismo resultado, ejerciéndose el voto de calidad del Presidente, siendo rechazada la enmienda.

| ONARTUA ACEPTADA | | EZETSIA RECHAZADA | X |
|---|---|---|---|

| Osoko Bilkurarako mantentzen da<br>Se mantiene para Pleno | X |
|---|---|

**2.- UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO ZUZENKETA**

Eranskinaren 2 epigrafea aldatzea (jabari publikoa okupatzea instalazio ezberdinekin), 1 atala. Tarifak, kutxazain automatiko edo antzekoei dagokienean:

| KONTZEPTUA | EURO |
|---|---|
| Kutxazain automatiko, kutxa gotor eta antzekoen herriko jabari publikoaren erabilera pribatibo eta aprobetxamendu berezia, establezimenduaren aurrealdean eta bide publikoaren aurrez aurre daudenean.<br>Jarduera baimendua urteko eta unitateko | 1.082 |

Lurzorua, hegalkinak edo lur-azpia okupatzea erabilera partikularretarako, hau da, kutxa erregistratzaileak, erregaiak kargatzeko ahoak, arketak eta trasformadoreak. Aipatutako aprobetxamenduei tarifa hauek ezarriko zaizkie:

1. Kutxa erregistratzaile edo banaketakoak, erregaiak kargatzeko ahoak, zutabeak, habeak, farolak edo $m^2$ baino gutxiago okupatzen dutenak, sei hilabeteka edo frakzioko: 8 €.
2. Elementu berak baina azaleraren 2 $m^2$ baino gehiago okupatzen dutenak, sei hilabeteka: 15 €.
3. 20 $m^2$ baino gutxiago okupatzen duten arketa, transformadore edo baskulak, sei hilabeteka: 30 €.
4. Elementu berak baina azaleraren 20 $m^2$ baino gehiago okupatzen dutenak, $m^2$ko edo gehiegizko frakzioko, sei hilabeteka: 1,5 €.

**2.- ENMIENDA DE MODIFICACIÓN A LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR OCUPACIÓN DE DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL**

Modificar el anexo, epígrafe 2 (ocupación de dominio público con instalaciones diversas), apartado I.Tarifas, en lo que se refiere a cajeros automáticos, cajas fuertes o similares, en los siguientes términos:

| CONCEPTO | EUROS |
|---|---|
| Utilización privativa y aprovechamiento especial del dominio público local de Cajeros automáticos, Cajas fuertes o similares, anexos o no a establecimientos de crédito instalados con frente directo a la vía pública, en línea de fachada.<br>Actividad autorizada al año por unidad | 1.082 |

Ocupación del suelo, vuelo o subsuelo para usos particulares, cajas registradoras, bocas de cargas de combustible, arquetas y transformadores, los citados aprovechamientos se ajustarán a las siguientes tarifas:

1. Cajas registradoras o de distribución, bocas de carga de combustible, columnas, postes, farolas o cualquier otro elemento cuya ocupación no exceda de medio m2, al semestre o fracción: 8 €.
2. Los mismos elementos, cuando excedan de aquella hasta dos m2de superficie, al semestre: 15 €.
3. Por cada arqueta, transformador o báscula cuya ocupación de vía pública no exceda de 20 m2, al semestre: 30€.
4. Los mismos elementos cuando exceda de 20 m2 de superficie ocupada, por m2 o fracción de exceso, al semestre: 1,5€ .

2) Epigrafea. I. Tarifak:

3. Puntua (gehitu). Irabazi asmoa duten erakusketa eta informazio-mahaiak (industrialak, merkataritzakoak edo komertzialak, esaterako, autobus publizitarioak, e.a.)

Epígrafe 2) I.Tarifas:

Punto 3: (Añadir) Exposiciones y mesas informativas de carácter lucrativo (industrial, mercantil o comercial; por ejemplo, autobuses publicitarios, etc.)

| | |
|---|---|
| ERRETIRATUA RETIRADA | |

| | | |
|---|---|---|
| ALDEKO BOTOAK VOTOS A FAVOR | 3 | HE (1) EHB (2) |
| KONTRAKO BOTOAK VOTOS EN CONTRA | 3 | EAJ-PNV (2) PSE-EE (PSOE) (1) |
| ABSTENTZIOAK ABSTENCIONES | 1 | PP (1) |

Bigarren bozketa bat burutu da, emaitza bera suertatu delarik. Horrela Presidentearen kalitate-bozkaren bitartez, zuzenketa ezetsi egiten da

Se procede a realizar una segunda votación, con el mismo resultado, ejerciéndose el voto de calidad del presidente, siendo rechazada la enmienda.

| | | | |
|---|---|---|---|
| ONARTUA ACEPTADA | | EZETSIA RECHAZADA | X |

| | |
|---|---|
| Osoko Bilkurarako mantentzen da Se mantiene para Pleno | X |

**3.- HIRIGINTZA LIZENTZIAK ETA BESTELAKOAK EMATEAGATIKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO ZUZENKETA**

1. Tarifak: lizentzia eskuratzeko gutxieneko tasa kendu.

6. Epigrafea, II, tarifak aplikatzeko arauak.

- Aldatu 9. puntua

*Por todo ello, desde EH Bildu creemos necesario que toda esa gente trabajadora que también construyó Durango, reciba un merecido reconocimiento*

*aitortza jasotzea. Eta aintzatespen honetan Durangoko Udalak berak ere badauka ardura handia, modu sinboliko baten bada ere, jende guzti horrek emandako guztiaren apur bat bederen itzultzeko.*

*Hori dela eta, Durangoko Osoko Bilkurak adosten du:*

1. *1950-1980 hamarkadetan espainiar estatuko probintzia eta komunitateetatik herrira etorritako langileek Durangori egin dioten ekarpen ekonomiko, sozial eta kulturala aztertuko duen ikerketa-beka bat sortzea, eta esperientzia pertsonalak zein bizipen negatiboak eta positiboak jasotzen dituena.*

2. *Ikerketa honek norbanakoen esperientzia pertsonalak barneratzea izango du helburu, pertsona guzti horien bizipen eta gertakarietan azpimarratuz. Horretarako, ikerketa modu parte hartzailean planteatuko da, zentro kultural, auzo elkarte eta protagonista zuzenekin harremanetan jarriz. Elkarrizketa egingo zaien eta parte hartuko duten pertsonen erdia, gutxienez, emakumeak izango dira.*

3. *Ikerketa-beka honen nondik norakoak eztabaidatzeko batzorde berezi bat egitea, elkarte eta eragile desberdinen parte hartzea sustatzeko. Hau ezinezko bada, kultura batzordean jorratuko da gaia*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu)**:

*Este se va y aquél se va*
*y todos, todos se van.*
*Galicia, sin hombres quedas*
*que te puedan trabajar.*
*Tienes, en cambio, huérfanos y huérfanas*
*y campos de soledad,*
*y madres que no tienen hijos,*
*e hijos que no tienen padres.*
*Y corazones que sufren*
*largas ausencias mortales,*
*viudas de vivos y muertos*
*que nadie consolará.*

*cimiento. Y en este homenaje, el Ayuntamiento de Durango también tiene mucho que hacer, para en cierta manera, devolver todo lo que hicieron para el pueblo, aunque sea en una forma simbólica.*

*Así, el Pleno Municipal de Durango acuerda:*

1. *La creación de una beca de investigación que analice la aportación económica, social y cultural que han hecho todas las personas trabajadoras que vinieron durante 1950-1980 desde las provincias y comunidades del estado español y que recoja sus experiencias personales y vivencias tanto negativas como positivas.*

2. *La investigación tendrá como objetivo integrar las experiencias personales de dichas personas, poniendo el relieve estas vivencias. Para ello, la investigación se planteará de una manera participativa, en colaboración con los centros culturales, asociaciones de barrios y las mismas personas protagonistas. Al menos la mitad de las personas entrevistadas y participantes serán mujeres.*

3. *Los detalles sobre esta beca se perfilarán en una comisión especial, en el que se fomentara la participación de diferentes asociaciones y centros. Si por algún motivo resulta imposible, se tratará en la de Cultura*."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu)**:

*Este se va y aquél se va*
*y todos, todos se van.*
*Galicia, sin hombres quedas*
*que te puedan trabajar.*
*Tienes, en cambio, huérfanos y huérfanas*
*y campos de soledad,*
*y madres que no tienen hijos,*
*e hijos que no tienen padres.*
*Y corazones que sufren*
*largas ausencias mortales,*
*viudas de vivos y muertos*
*que nadie consolará.*

Rosalía de Castro idazle eta poeta galiziarraren olerki ederrenetako bat da hau, eta kultura galiziarraren adierazle handienetakoa. Eta guk eskatutako ikerketa bekaren gai berdina jorratzen du; migrazioarena.

Durangok aldaketa asko bizi izen ditu azkenengo mendean, eta horretatik aipagarrienetarikoa XX. mendean izandako hazkundea da. 50-80. hamarkadetan bere populazioa hirukoiztu egin zuen Durangok, eta hori, hein handi baten, immigrazio estatalari esker izan da.

Immigrazio horrek Durango berri bat sortzen lagundu zuen. Aurretik zegoena hartu, berau dibertsoagoa egin, aberastu eta denontzako izango zen leku bat sortzen lagundu.

Arrazoi asko egon daitezke ikerketa beka hau eskatzeko. Arrazoi asko egon daitezke 50-80 hamarkada artean Durangora etorri ziren milaka eta milaka langileak herrian egindako lana aztertzeko, hau balorean jarri eta egindako ekarpen kultural, ekonomiko eta sozial hori eskertzeko.

Langile horiek erkidego askotatik etorri ziren: Andaluzia, bi Gaztelak, Extremadura, Galizia. Izan ere, 50eko hamarkadan ez zen arrotza migrazioa estatuaren barruan gertatzea; gainera, erkidego horietako askotan, hamarkada ugari zeramatzaten ikusten seme-alabak nola joaten ziren etxetik; mendeak, beharbada.

Baina gauza arrunt bat izan den arren historian zehar estatu barruko herri eta komunitateetan, ez du horrek esan gura gauza erreza izen denik egundo, beti izango da eta gogorra atzean uztea zure etxea, herria, lagunak, zure bizitza osoa, ezagutzen ez duzun herri batera lana egitera joateko. Gogorra da eta Sarrik ondo irudikatzen du hau bere olerki oso eder honetan:

*Nekez uzten du bere sorterria*
*sustraiak han dituenak.*
*Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak*
*ez bada abaildu eta oholetan.*
*Ez du niniak begia uzten*
*ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.*
*Nekez uzten du gezalak itsasoa*
*ez hareharriak basamortua.*
*Ez du liliak udaberria uzten*
*ez elurrak zuritasuna.*

Este es uno de los poemas más bellos de la escritora y poetisa gallega Rosalía de Castro, y una de las mayores expresiones de la cultura gallega. Y trata sobre el mismo tema para el que hemos solicitado la beca de investigación: la migración.

Durango ha vivido muchos cambios en el último siglo, y el más reseñable es el crecimiento que se produjo en el siglo XX. La población de Durango se triplicó entre la década de los 50 y la de los 80, en gran medida gracias a la inmigración estatal.

Esa inmigración contribuyó a crear un nuevo Durango. Lo que había por entonces se convirtió en algo más diverso, se enriqueció, y contribuyó a crear un lugar para todos.

Pueden existir muchas razones para solicitar esta beca de investigación. Pueden existir muchas razones para analizar el trabajo que miles y miles de trabajadores venidos a Durango hicieron, para ponerlo en valor y agradecer esa aportación cultural, económica y social.

Esos trabajadores llegaron desde muchas comunidades de Andalucía, de las dos Castillas, de Extremadura o de Galicia. No era raro, en los años 50, la migración dentro del estado; además, muchas de estas comunidades, llevaban décadas, quizás siglos, viviendo esta partida de hijas e hijos que dejaban sus hogares.

Si bien durante la historia ha sido un suceso común entre los pueblos y comunidades dentro del estado, eso no significa que haya sido fácil; siempre va a ser duro dejar tu casa, tu pueblo, tus amistades, toda tu vida, para irte a trabajar a un pueblo que no conoces. Es duro, y Sarri lo plasma muy bien en este bonito poema suyo:

*Nekez uzten du bere sorterria*
*sustraiak han dituenak.*
*Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak*
*ez bada abaildu eta oholetan.*
*Ez du niniak begia uzten*
*ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.*
*Nekez uzten du gezalak itsasoa*
*ez hareharriak basamortua.*
*Ez du liliak udaberria uzten*
*ez elurrak zuritasuna.*

*Bere sorterria nekez uzten du
sustraiak han dituenak.*

Eta hala eta guztiz ere, nahiz eta dena utzi eta Durangora etorri behar izan zuten, Euskal Herrira, Durangora heldu ziren milaka langileek mespretxua pairatu behar izan zuten, migratzaile izate hutsagatik. *Maketo, mantxurriano, koreano, belarrimotz*... Horietan guztietan, euskal nazionalismoak, beste nazionalismo oker eta arriskutsu batzuek bezala, besteen mespretxua izan zuen oinarri, zortzi euskal abizenen nolabaiteko chauvinismo bat, jomuga okerra zuena, gainera. Izan ere, jomuga pertsona ahulak ziren, lan egin besterik ez zutenak nahi, jatorrizko herrian bizitza ukatu zietenak lan faltagatik edo ezkertiartzat jo zituen estatu frankistaren errepresioagatik; gobernu zilegi eta errepublikarra babestu zuten pertsonatzat hartu zituzten, baina gerra galdu zuenez, emigratu behar izan zuten, eta kasu askotan, Durangora heldu ziren lan bila.

Gure iritziz, beka erabilgarria izan daiteke ildo horretan. Autokritika moduan ikus dezakegu, gutako bakoitzak eta kolektiboan egin behar dugun gogoeta moduan, egungo Durangoren parte garen aldetik. *Maketo, koreano, belarrimotz* edo *mantxurriano* horietako bakoitzean, desberdina zena aldatzeko saiakera ere bazegoen, kanpotik zetorrena aldatzeko eta berez izan behar omen zuten erara egokitzeko saiakera.

Eta gizarteratzeko politika, dibertsitatearen politika, horrela planteatzen badugu, ez dugu inoiz asmatuko herri honek hainbeste urtez sufritu ondoren behar duen elkarbizitzarako bidearekin. Bizilagunarekin hitz egin ezin baduzu zure iragazkitik pasatu gabe, orduan ezingo da inoiz elkarbizitza egon 50eko hamarkadan emigratu zutenekin, are gutxiago gaur egun datozenekin edo etorkizunean etorriko direnekin.

Era berean, uste dugu beka hau mesedegarria izan daitekeela herriko kultur etxeetarako. Haiekin hitz egiten dugunean, askotan diote belaunaldiko erreleboa behar dela, gazteek ez dutela hartu nahi haiek urte askoan eraman izan duten lekukoa; kultur etxeak husten ari dira pixkanaka.

*Bere sorterria nekez uzten du
sustraiak han dituenak.*

Y aún teniendo que dejarlo todo y venir a Durango, a Euskal Herria, estos miles de trabajadores que llegaron a Durango tuvieron que sufrir el desprecio por el simple hecho de ser personas migrantes. En cada *maketo*, *mantxurriano*, *coreano* o *belarrimotz* se colaba lo peor de un nacionalismo euskaldun que, como otros nacionalismos erróneos y peligrosos, se basaron en un desprecio a lo ajeno, se basaron en una suerte de chovinismo de 8 apellidos vascos que además erraba en el objetivo, ya que tristemente iba dirigido al débil, a la persona trabajadora que simplemente quería trabajar, con una vida negada en sus pueblos de origen, ya sea por falta de trabajo, sea por la represión del estado franquista que los marcó como gente de izquierdas, como gente que apoyó un gobierno legítimo y republicano pero que perdió la guerra y por eso tuvieron que emigrar y, en muchos casos, llegaron a Durango a buscar un trabajo.

Creemos que la beca puede ser útil en este sentido; que pueda servir como autocrítica, como reflexión que todos y cada una de nosotros tenemos que hacer de manera individual y colectiva como parte integrante del Durango de hoy en día. En cada unos de esos *maketo, coreano, belarrimotz* o *mantxurriano* se colaba también un intento de cambiar al diferente; de cambiar al que venía de fuera y de querer amoldarlo a lo que uno pensaba que debería de ser.

Y si planteamos en estos términos la política de integración, la política de la diversidad, nunca acertaremos a hacer el camino de convivencia que tanto necesita este pueblo después de tantos años de sufrimiento. Si no eres capaz de hablar con la vecina sin querer pasarlo por el filtro propio, nunca podrá haber convivencia ni con las personas que emigraron en los años 50, ni mucho menos con las personas que llegan hoy en día o que llegarán en el futuro.

Asímismo, también creemos que esta beca puede servir para ayudar a los centros culturales del pueblo. Al hablar con ellos, muchas veces dicen que hace falta un relevo generacional, que los y las jóvenes no quieren tomar ese testigo que ellos han llevado durante tantos años, los centros culturales se están vaciando poco a

Beharbada, lagungarri izango zaigu José Mercéren *Yo siempre seré del sur aunque no esté en mi tierra* entzutea, hori esaten baitu bere abestietako batean. Ez alferrik, euskal diaspora ekartzen digu gogora, sorlekuko sustraiei eta hizkuntzari eutsi nahi izateagatik harrotasunez betetzen gaituena.

Baina zelan ez, hau horrela izango bada denon artean egindako ikerketa beka bat izango delako da. Aurrez aipatutako helburu bat ere ez dugu lortuko, beka hau ikerketa beka akademiko bat bihurtzen bada soilik; ikerketa hau ez bada zentro kulturalekin, eragileekin, norbanakoekin, herriarekin elkarlanean egiten, alferrikako gauza bat izango da.

50-80ko hamarkadetako immigrazioari buruzko kontakizuna sortzeko, inor kanpoan uzten ez duen kontakizun kolektiboa behar dugu, zeinean esperientziak, bizipenak eta istorio pertsonalak, sorlekuak, bizi- eta lan-baldintzak, eta herri arrotz batera iristean sortzen diren une zoriontsu eta zailak jasotzen baitira. Kontakizun hori herri baten kontakizuna izango da, Durango gaur egun denaren zati garrantzitsu bat. Antonio Machadok esan zuenez:

*Caminante, son tus huellas*
*el camino y nada más;*
*Caminante, no hay camino,*
*se hace camino al andar.*

Hortaz, inor bazter utzi gabe, has gaitezen denona den eta denok aberasten gaituen bide batean zehar ibiltzen.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Uste dugu bekaren gaia aurrekontuen negoziazioan jorratu behar dela, eta ñabardurak informazio-batzordeetan egin behar direla, horretarako daude eta. Gaia ez dagokio osoko bilkurari, hedabideetan biharko titularrak irabazteko eta herritarren baten irribarrea lortzeko, merezita ez bada ere. Ez da aproposa osoko bilkuran populismoa egitea hilero. Moduak okerrak dira, eta asmo txarrekoak ere izan litezke.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ekimen ona iruditzen zaigu, baina kontu jakin batzuen hutsunea ikusten dugu. Kontakizuna garrantzitsua dela uste dugu; nolanahi ere,

poco. Quizá no sirva para reproducir el *"Yo siempre seré del sur aunque no esté en mi tierra"* de José Mercé, que así nos lo dice en una de sus canciones y que tanto nos recuerda aquí a esa diáspora vasca de la que tanto nos orgullecemos de que quiera mantener las raíces de sus orígenes y quieran mantener su lengua.

Pero cómo no, esto será así si es una beca de investigación creada por entre todos. No cumpliremos ni uno solo de esos objetivos si esa beca de investigación se convierte en una mera beca académica; si esta beca no se materializa en colaboración con los centros culturales, con los agentes, con los individuos y con la ciudadanía, será en vano.

Para crear un relato sobre la inmigración que se dio en las décadas de los 50-80 es necesario que sea un relato colectivo en el que nadie quede exento; un relato que integre experiencias, vivencias e historias personales, lugares de origen, condiciones de vida y trabajo, los momentos felices y difíciles de arribar a un pueblo extraño. Ese relato será un relato del pueblo, será una parte importante de lo que hoy en día es Durango. Como ya lo dijo Antonio Machado:

*Caminante, son tus huellas*
*el camino y nada más;*
*Caminante, no hay camino,*
*se hace camino al andar.*

Por lo tanto, sin olvidarnos de nadie, comencemos a andar por un camino que a todos nos pertenece y que a todos nos enriquece.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Creemos que el asunto de la beca es un asunto a tratar en la negociación de presupuestos y a matizarlo en las diferentes comisiones informativas que para eso están, y no para venir al pleno a ganarse los titulares de la prensa de mañana y la sonrisa no merecida de alguna o algún vecino. No es cuestión para hacer populismo en el pleno mes a mes. La forma es equivocada y, si me apuran, malintencionada.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Nos parece una buena iniciativa, pero echamos en falta determinados aspectos; nos parece que el relato es importante, pero también

nola kontatzen den eta nork kontatzen duen ere garrantzitsua da, eta beraz, ez zaigu aski iruditzen pertsona horien alde ekonomikoa, soziala eta kulturala soilik aztertzea.

Gure ustez, beren lurraldea, herria, sustraiak uzteak zer ekarri zien azaldu behar da, nola sentitu ziren eta nolako harrera egin zieten; azken batean, hala esperientzia positiboak nola negatiboak jaso behar direla uste dugu. Hori dela bide, lehen puntua izango litzatekeena gehitu nahiko genuke: "*Ikerketa-beka bat sortzea, ekarpen ekonomikoa, soziala eta kulturala aztertzen dituena eta esperientzia pertsonalak zein bizipen negatiboak eta positiboak jasotzen dituena*". Hori esan nahi genuen, batetik.

Eta bestetik, beharrezko deritzogu testuan agertzen diren emakumeek ahotsa izatea ikerlanean, ez soilik pasadizo moduan. Badakigu emakumeen eta gizonen arteko arrakala handiagoa zela garai hartan, eta ez dut uste gogorarazi behar dugunik gehienak etxeko andretzat jotzen zituztela. Horrenbestez, bigarren puntua hau izateko eskatzen dugu: "*Elkarrizketa egingo zaien eta parte hartuko duten pertsonen erdia, gutxienez, emakumeak izango dira*".

Hasiera batean, bi ekarpen horiek ditugu Gobernu-Talde moduan; gero, hirugarren bat egongo da, eta horrekin ere bat egingo dugu.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Herriaren Eskubidearen aldetik, ekimen aproposa eta garrantzitsua dela uste dugu. Gure ustez, ekimena aberasgarria izango da herrirako, eta Durangoren iragana eta oraina ikusgai jartzen ditu. Egungo Durango hona etorritako pertsona guztien ekarpenen emaitza da, eta etorkizuneko Durango egungo immigrazio berriaren ekarpenen emaitza izango da. Immigrazioak hobetzea dakar, aberastu egiten gaitu; hori dela eta, aldeko botoa emango dugu.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure aldetik, Alderdi Sozialistaren Bozeramaleak esandakoaz gain, ekarpen bat egingo dugu. Esan egin da ez dela nahi zehaztasun zientifikoa baino ez duen beka bat izatea, baina zuzenketa edo beste zerbait izan behar

lo es cómo se cuente y quién lo cuente, por lo que nos parece insuficiente que solamente se analice la parte económica, social y cultural de estas personas.

Creemos que también debe de recoger lo que supuso el cambio de dejar su territorio, su pueblo, sus raíces, cómo se sintieron y cómo fueron acogidas; en resumen, creemos que deben de aparecer tanto las experiencias positivas como negativas. Por este motivo nos gustaría añadir un punto número uno que quedaría así: "*La creación de una beca de investigación que analice la aportación económica, social y cultural y que recoja sus experiencias personales y vivencias tanto negativas como positivas*". Esto por un lado.

Por otro, creemos necesario que en este texto las mujeres aparezcan, tengan voz en la investigación y no solo anecdótica; sabemos que en esa época la brecha entre las mujeres y hombres era mayor, y no creo que tengamos que recordar que la mayoría eran consideradas como amas de casa. Por eso pedimos también que aparezca un punto número 2 en el que diga: "*Al menos la mitad de las personas entrevistadas y participantes serán mujeres*".

En principio estas dos aportaciones que las hacemos como Equipo de Gobierno, y una tercera que habrá posterior y a la que también nos sumamos.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Desde Herriaren Eskubidea nos parece una iniciativa acertada e importante. Creemos que esta iniciativa enriquece a nuestro pueblo, visibiliza el ayer y hoy de Durango. El Durango de hoy es fruto de todas las aportaciones de todas las personas que han venido a Durango, y el Durango del mañana será de todas las aportaciones de las nuevas inmigraciones que tenemos hoy; creemos que la inmigración nos hace mejores y nos da mayor riqueza, por ello votaremos a favor.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Por nuestra parte, además de lo dicho por la Portavoz del Partido Socialista, vamos a hacer una aportación. Se ha dicho que no se quiere que sea una beca únicamente con precisión científica, pero creemos que debe hacerse una corrección o que debe tener otra cosa, me-

duela uste dugu, akordio bidez, unibertsitate edo beste zentro batekin, zuzentasun edo zehaztasun zientifiko minimo bat ziurtatzen diona.

* **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu)**: Alderdi Sozialistaren Bozeramaleari esan nahi diogu ez ditugula hainbeste zehaztasun jarri mozioan hirugarren puntuan esan dugulako bekari buruzko zehaztasun horiek komisioan erabakiko direla, hemendik ez dadin irten beka itxi bat. Emakumeen presentzia bermatuta egon behar denaren puntuarekin ere ados gaude. Aipatu da, baita ere, esperientzia positiboak eta negatiboak agertzea; jakina, eta uste dut argi utzi dugula mozioan barneratu daitezela istorioak modu erreal baten eta ez modu adulteratu baten.

EAJak esandakoarekin ere ados; ez dugu nahi zientifikotasun minimorik ez izatea, gura duguna da jendeari balio izango dion beka bat. Guk esan nahi genuena da beka ez dadila mugatu datu hutsetara, erabiliko diren datuak kontrastatutako datuak izan daitezela, baina garrantzia izan dezatela norbanakoen bizipenak eta istorioak.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.

- Abstentzioak: BAT, 1 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua, Gobernu-Taldeak emandako aldaketekin.

diante un acuerdo con alguna universidad o centro, para que garantice un mínimo de corrección o precisión científica.

* Concejal **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu)**: A la Portavoz del Partido Socialista le queremos transmitir que no hemos incluido tantos detalles en la moción porque en el tercer punto se ha expresado que esas cuestiones se decidirán en la comisión, de forma que no salga de aquí una beca cerrada. Estamos de acuerdo en que debe garantizarse la presencia de mujeres. Asimismo, se ha mencionado que deben recogerse experiencias positivas y negativas; desde luego que sí. Según mi parecer, hemos dejado claro en la moción que las historias deben plasmarse de forma real, no de un modo adulterado.

También estamos de acuerdo con lo que ha expresado el PNV; no es que no queramos que tenga de un mínimo de cientificidad, sino que queremos una beca que le sirva a la gente. Lo que queremos es que la beca no se limite a datos fríos; queremos que se empleen datos contrastados, pero que la mayor importancia se les dé a las vivencias e historias de los individuos.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

- Votos en contra: NINGUNO.

- Abstenciones: UNA, 1 del Partido Popular.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita, con las modificaciones aportadas por el Equipo de Gobierno.

**ZORTZI.- EUSKAL HERRIA BILDU ETA HERRIAREN ESKUBIDEA TALDEEN MOZIOA, BABESTUTAKO PERTSONA HARRERAREN EZ BETETZEARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2017007487, 2017KO URRIAREN 17KOA).**

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)** irakurri egiten du Euskal Herria Bildu eta Herriaren Eskubidea Udal Taldeen izenpeturiko mozioa, babestutako pertsona harreraren ez betetzeari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2017007487, 2017ko urriaren 17koa, eta honako hau dioena:

"*Irailaren 2an urte bi bete ziren Aylan ume errefuxiatua Turkiako kostaldean ito zenetik. Aylan bizitza arriskatuz Europako lurretara babes bila jotzen duten pertsonen tragediaren sinbolo bihurtu zen.*

*Errefuxiatuen alde egindako deiak ez du esperotako erantzuna jaso: Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen arabera, duela bi urtetik hona 500 adin txikiko baino gehiago hil dira Mediterraneoan, Europako kostaldera heldu guran.*

*"Aylanen heriotzatik, errefuxiatuen egoera okerrera joan da. Europan, sentsibilitatea handitu beharrean, hesi altuagoak eraikitzea erabaki da, mugak ixtea eta Europako lurretara sartzeko bide legalak kentzea", azaldu dute Save The Children erakundetik.*

*Zera gaineratu du GKEak: "Eraginkortasunik eza, erantzukizunik eza eta gizatasunik eza. Hori da bi urteren osteko balantzea. Ez da migrazioen inguruko kudeaketa hobetu. Trafikanteak pozik daude, eta txalotu egiten dituzte EBren erabakiak".*

*Duela bi urte, ume kurdu haren antzeko tragediek presionatuta Europako Batasuna errefuxiatuak hartzearen aldeko diskurtsoa egiten hasi zen arren, handik hile gutxira, 2016ko martxoan, EBk Turkiarekin ituna sinatu zuen Grezian errefuxiatuen etorrera gelditzeko. Save The Childrenen datuen arabera, gaur egun, 20.300 adin txikiko inguru daude Grezian harrapatuta, ez direlako birkokatzeko konpromisoak bete.*

**OCHO.- MOCIÓN PRESENTADA POR LOS GRUPOS EUSKAL HERRIA BILDU Y HERRIAREN ESKUBIDEA, RELATIVA AL INCUMPLIMIENTO DE LA ACOGIDA DE PERSONAS REFUGIADAS. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2017007487, DE 17 DE OCTUBRE DE 2017).**

* El Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)** da lectura a la Moción presentada por los Grupos Municipales Euskal Herria Bildu y Herriaren Eskubidea, relativa al incumplimiento de la acogida de personas refugiadas, con Registro de Entrada nº 2017007487, de 17 de Octubre de 2017, del tenor literal siguiente:

*"El 2 de Septiembre se ha cumplido dos años de la muerte de Aylan, un niño refugiado ahogado en las costas turcas. Se convirtió en un símbolo de la tragedia de las personas que arriesgan su vida para alcanzar suelo europeo en busca de refugio.*

*El llamamiento no ha tenido el efecto que esperaban: desde entonces, más de 500 menores han muerto ahogados en el Mediterráneo en su intento de llegar a las costas europeas, según la Organización Internacional para las Migraciones (OIM).*

*"Desde la muerte de Aylan, todo ha ido a peor para lxs refugiadxs. Ha sido muy perjudicial porque, lejos de aumentar la sensibilidad de Europa, se ha decidido subir las vallas, cerrar las fronteras y que no haya vías legales de acceso a suelo europeo", afirman desde Save The Children.*

*"Ineficacia, irresponsabilidad e inhumanidad. Ese es el balance dos años después. No hay una mejor gestión migratoria. Los traficantes están en su mejor momento, aplauden las decisiones de la UE"*

*La Unión Europea pasó, en pocos meses, de un discurso de acogida de refugiadxs, forzado por tragedias como las del niño kurdo, al acuerdo con Turquía en marzo de 2016 que frenó las llegadas a Grecia. A día de hoy, alrededor de 20.300 menores refugiadxs permanecen atrapados en Grecia a la espera de que se cumplan los compromisos de reubicación, según Save The Children.*

*Unicef-etik azaldu dutenez, Europara heltzeko bideak "garestiagoak" eta arrisku handiagokoak dira egun adingabe hauentzat. "Esplotazio izugarria jasan behar izaten dute. Aylanen argazki haren ostetik, ume migratzaileak eta errefuxiatuak ez dira titularretan agertzen, nahiz eta egoera dramatikoa den bidaiaren tarteko herrialdeetan, Libian esaterako, eta Europan bertan ere bai."*

*2017ko irailaren 26an amaitu zen Europako Batasunak berak bere buruari 182.504 errefuxiatu hartzeko jarri zion bi urteko epea. Bi urte pasatu dira, eta 46.522 pertsona baino ez ditu lekualdatu; Greziatik eta Italiatik edo Libanotik eta Turkiatik birkokatuta. CEAR erakundeak emandako datuen arabera, Europako Batasunak hartutako* ***konpromisoaren %25 bete da****.*

*Espainiako estatuak, bere aldetik, 1.983 errefuxiatu baino ez ditu hartu, eta guztira 17.337 eskatzaile hartzeko konpromisoa hartu zuen. Europako zortzigarren postuan dago errefuxiatuen harrerari dagokionez; baina hartutako konpromisotik* ***%11a baino ez du bete****, Europako batez bestekoa baino 14 puntu gutxiago. Prozesua hasi zenean, Espainiak 15.888 pertsona birkokatzeko konpromisoa hartu zuen, eta* ***9.323 derrigorrez hartzekoak ziren****. Hala ere, ezinbesteko kupo horren baitan sartzen diren eta babesa jaso duten errefuxiatuak 1.279 baino ez dira izan. (1.089 Greziatik etorritakoak eta 190 Italiatik etorritakoak).*

*CEARek iruzur handitzat kalifikatu du errefuxiatuak hartzeko EBk abiatu zuen prozesua, eta Espainiako gobernuari eta beste estatu guztiei exijitu die* ***konpromisoak betetzeko****, betebeharrak "ez baitira preskribitzen". "Prozesu hau iruzur handia izan da herritarrei, errefuxiatuei eta giza eskubideei begira". Errefuxiatuen aldeko koordinakundeak gogoratu duenez, "Europako Batzordeak ez du epe hori itxi; herrialdeek jarraitu egin behar dute harrerako prozesuarekin,* ***betebeharrak ez direlako preskribitzen*** *eta ahalik eta eraginkortasun handienarekin bete behar direlako".*

*Gauzak horrela, Durangoko Udalak:*

1. *Salatzen du Espainiako gobernuak ez dituela errefuxiatuen harrerarako hartutako konpromisoak bete, eta eskatzen dio berehala bete ditzala, eta gara ditzala politika sendoak emigranteen eta errefuxiatuen harrera arloan eta*

*Las rutas, se explica desde Unicef, son ahora "más costosas" y peligrosas para estos menores. "Están sometidos a una explotación enorme. Desde la foto de Aylan, lxs niñxs migrantes y refugiadxs no ocupan los titulares, a pesar de que la situación es dramática en países de tránsito, como Libia, y en la propia Europa".*

*El 26 de septiembre de 2017, se agoto el plazo que se dio la propia Unión Europea, en septiembre de 2015, para dar asilo a 182.504 refugiadxs. Dos años después,* ***únicamente*** *ha trasladado a 46.522 personas, ya sean reubicadas desde Grecia e Italia, o reasentadas desde Líbano o Turquía. Es decir,* ***25% del compromiso comunitario****, según datos ofrecidos por la Comisión Europea de Ayuda al Refugiado (CEAR).*

*El estado español, por su parte, se encuentra en octava posición tras recibir a apenas a 1.983 personas de los 17.337 solicitantes a los que se comprometió.* ***Un errático 11%****, 14 puntos por debajo de la media europea. El primero de los compromisos de nuestro país era reubicar a 15.888 personas, de las cuales* ***9.323 eran de obligado cumplimiento****, y que, en cambio, sólo ha amparado a 1.279 (1.089 procedentes de Grecia y 190 de Italia).*

*CEAR ha denunciado "****el gran fraude****" que ha supuesto el proceso de acogida de personas refugiadas en la UE, y ha reclamado al estado español y al resto de los Estados que* ***cumplan con sus compromisos*** *porque las obligaciones "no prescriben". "Todo este proceso ha sido un gran fraude a la ciudadanía, a las personas refugiadas y a los derechos humanos", Hay que recordador que la Comisión Europea no cierra definitivamente ese plazo, sino que los países deben seguir con los procedimientos de acogida después de esa fecha, porque las* ***obligaciones "no prescriben*** *y deben cumplirse con la mayor eficacia".*

*El ayuntamiento de Durango insta:*

1. *Condenar el incumplimiento de los compromisos de acogida por parte del Estado Español e instar a éste, al cumplimiento urgente de los mismos, así como a garantizar el desarrollo de unas políticas garantistas en materia de acogida de personas migrantes y*

*erakunde arteko lankidetza arloan lan egiteko.*

2. *Europako gobernuei exijitzen die bide seguru eta legalak jartzea eta errefuxiatuen giza eskubideak defendatzea*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Eskatzen den guztiari buruzko informazio nahikoa eman da dagozkion foroetan, eta horrelako mozioen bidez, errendimendua ateratzen da egiarik ezetik abiatuta. Kongresuan eta Senatuan dituzuen ordezkariei informazioa eman zaie Espainiako gobernuak egindako lanari buruz, eta zuek demagogia egiten ari zarete hemen, Durangoko herritarrek aitortuko ez dizuena.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ados gaude aurkeztu den testuarekin; aldeko botoa emango dugu. Errefuxiatuen egoera dramatikoa da; irtenbideak bilatu behar dira eta lortu diren akordioak bete.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Aurreko puntuan onartu dugun beka aurkeztu genuenean, Gaztela-Mantxatik etorritako lagun batek horrelako zerbait adierazi zuen: "*seguramente hoy en día la acogida es todavía peor, es más dura para los que vienen de fuera porque empiezan con las tonterías de 'vienen a quitarnos el trabajo' y todo ese tipo de cosas*" . Eta horrela gertatu da errefuxiatuekin, batez ere Europan; Pegida bezalako mugimenduek horrelako argurdioak erabili dituzte, anti-islamismoa, eta hemen moztu egin zen bere momentuan sortu zen akordioa.

Normalean, atentatu bat gertatzen denean, batez ere Europan gertatzen denean, salatzeko eta elkartasuna adierazteko ateratzen gara. Baina errefuxiatuek egunero pairatzen dituzte atentatuak, eta hona etortzen dira egoera horretatik alde egiteko. Europar Batasuneko gobernuen erantzuna beste alde batera begiratzea izan da, akordioak egitea errefuxiatuak Europar Batasunetik kanpo geratzeko; baina, aldi berean, jarraitzen dute armak saltzen eta egoera horiek, neurri ba-

*refugiadas y en materia de cooperación institucional.*

2. *Exigir a los gobiernos europeos vías seguras y legales. Así como la defensa de los derechos humanos de las personas refugiadas*."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Todo lo que se solicita está sobradamente informado en los foros correspondientes y lo que se está haciendo con mociones de este tipo es sacar rendimiento desde la falta de la verdad. Sus representantes en el Congreso y en el Senado han sido informados de la labor llevada a cabo desde el gobierno de España, y ustedes aquí hacen una labor de demagogia que la ciudadanía duranguesa no se lo va a reconocer.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Estamos de acuerdo con el texto que se presenta, vamos a votar a favor. La situación por la que están pasando los refugiados es dramática y es necesario buscar soluciones y cumplir con los acuerdos que se han adoptado.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Cuando presentamos la beca aprobada en el punto anterior, un amigo venido de Castilla-La Mancha dijo algo así: "*seguramente hoy en día la acogida es todavía peor, es más dura para los que vienen de fuera porque empiezan con las tonterías de 'vienen a quitarnos el trabajo' y todo ese tipo de cosas*". Y eso es lo que ha pasado con los refugiados, sobre todo en Europa. Los movimientos como Pegida han utilizado ese tipo de argumentos, el antiislam, y aquí se cortó el acuerdo que surgió en su día.

Normalmente, cuando ocurre un atentado, sobre todo en cuando ocurre en Europa, salimos a denunciarlo y a expresar nuestra solidaridad. Sin embargo, los refugiados sufren atentados a diario, y vienen aquí a huir de esa situación. La respuesta de los gobiernos de la Unión Europea ha sido mirar hacia otro lado, llegar a acuerdos para que los refugiados se queden fuera de la Unión Europea. Al mismo tiempo, en cambio, continúan vendiendo armas e impulsando esas situaciones,

tean, bultzatzen. Konpromisoa bete barik geratu da eta zenbakiak hor daude: Europar Batasunean %25 Espainiar estatuan %11 eskas.

Eta hor ditugu errefuxiatuak Lesbosen, Melillan, Idomenin, Ceutan... harresiak egiten, baina ez hor bakarrik; orain beste harresi bat egin nahi dute Bilboko portuan errefuxiatuak Bilboko portutik Erresuma Batura ez pasatzeko. Eta hori defenditu dute Arantza Tapiak edo Asier Atutxak. Beraz, Ceutan, Lesbosen, Melillan... bai, baina hemen ere harresi bat eraiki nahi dugu. Horma bat gosetik eta beldurretik ihes egiten duten pertsonen aurka.

Frantziako iraultzan, Eskubide Unibertsalak aldarrikatu zirenean, kontserbadore erreakzionarioetako batek esan omen zuen ea "zer demontre diren eskubide unibertsalak; eskubideak herrialde bateko biztanleei soilik dagozkie". Eta gaur egun egia bihurtu da; giza-eskubideak bakarrik dira hemengo herritarrentzat. Beraz, beharrezkoa ikusten dugu mozioa eta beharrezkoa ikusten dugu konpromisoak betetzea.

4. Alkateordea **Diaz Basterra andrea (EAJ/PNV)**: Ados gaude mozioarekin eta aldeko bozka emango diogu.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Demagogiaren harira, kontzeptu batzuk argitu nahi nituzke, ematen du-eta zenbaitek atsegin dutela hitz hori erabiltzea. Hemen errefuxiatuei buruzko bi mozio onartu genituen 2015ean. Beraz, ikusita Europar Batasunak eta Espainiako estatuak ez dutela dagokiena bete, gutxienez horretaz jabetu behar dugu eta haserrea eragin behar digu, gero eta hein txikiagoan ordezkatzen gaituzten erakunde horien jokabidea ikusita.

Demagogia da egoitza bat B diruarekin ordainduta izatea, diruzain guztiak inputatuta izatea. Gaur, ustelkeriaren aurkako fiskaltzak Alderdi Popularraren B kaxa berretsi du, legez kanpoko amnistia fiskal bat; aste honetan, ustelkeriagatik zigortutako sei indultatu ikusiko ditugu Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Demagogia da legezkotasuna betetzeari buruz jardutea egun osoa, baina aldi berean, 155. artikulua aplikatzea. Errefuxiatuei asiloa

en cierta medida. El compromiso ha quedado sin cumplir, y ahí están los números: en la Unión Europea, un 25 %, y en el estado español, un nimio 11 %.

Y ahí están los refugiados en Lesbos, en Melilla, en Idomeni, en Ceuta... Construyendo muros. Pero no solo ahí, ahora también se está construyendo otro muro para que no pasen desde el puerto de Bilbao hasta el Reino Unido. Y eso lo han defendido Arantza Tapia y Asier Atutxa, por ejemplo. Así que en Ceuta, Lesbos, Melilla... Sí, pero aquí también queremos construir un muro. Un muro contra la gente que huye del hambre y el miedo.

En la Revolución Francesa, cuando se proclamaron los Derechos Universales, uno de los conservadores reaccionarios, dijo que "qué era eso de los derechos universales; los derechos corresponden nada más que a los habitantes de un país". Y hoy día se ha hecho realidad, los derechos humanos son solo para la ciudadanía de aquí. Por consiguiente, la moción nos parece necesaria, y creemos que deben cumplirse los compromisos.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Estamos de acuerdo con la moción y votaremos a favor.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Por ir aclarando conceptos con el tema de la demagogia que, parece ser, gusta mucho utilizar esa palabra. Aquí hemos aprobado dos mociones en el 2015 relativas a los refugiados y refugiadas y por eso, que menos que, después de los incumplimientos que se han llevado a cabo en la Unión Europea y el estado español, nos demos cuenta y nos indignemos por la falta de cumplimiento de estas instituciones que cada vez nos representan menos.

Demagogia es tener una sede pagada en B, tener todos los tesoreros imputados. Hoy, la fiscalía anticorrupción ha confirmado la caja B del Partido Popular, una amnistía fiscal ilegal, esta semana vamos a ver en el Boletín Oficial del Estado seis indultados por corrupción.

Demagogia es hablar todo el día del cumplimiento de la legalidad para implementar el 155; la ley del asilo de los refugiados también está en

emateko legea ere Konstituzioan dago, 13.4 artikuluan. Orobat, Espainiako estatuak sinatuak ditu Genevako 1951ko hitzarmena eta New Yorkeko 1967ko protokoloa, eta ez da betetzen ari. Asilorako eskubidea ere giza eskubide bat da; giza eskubideen aldarrikapen unibertsaleko 14. artikulua, hain zuzen ere.

Irrigarria ere bada. Aste honetan, Elkartasunaren Asturiasko Printze Saria ikusi dugu; zehazki, 1986tik aurrera ematen zaio haren lana gizonek (eta emakumeek, pentsatzen dut) elkar ulertzeko eta elkarrekin bakean bizitzeko lagungarri izan den pertsona bati, edo injustiziaren, pobreziaren, gaixotasunen edo ezjakintasunaren aurka borrokatu den pertsona bati, edo askatasuna defendatu duenari, edo ezagutzan ildo berriak zabaldu dituenari, edo gizadiaren ondarearen kontserbazioan eta babesean bereziki nabarmendu denari.

Benetan merezi du sari bat errefuxiatuekiko konpromisoak bete ez dituen, eta Bigarren Mundu Gerraren ondoko exodorik handienaren aurrean, mugak itxi dituen norbaitek? 40.000 hildako Mediterraneoan, XXI. mendean. Sari bat merezi du, bai, baina lotsaren saria.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrako botoak: BAT, 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

la constitución, en el artículo 13.4. También, el estado español, ha firmado los convenios de Ginebra del 1951 y el protocolo de Nueva York del 1967, y los está incumpliendo. El derecho a asilo también es un derecho humano, es el artículo 14 de la declaración universal de los derechos humanos.

Resulta irrisorio: esta semana hemos visto el premio Príncipe de Asturias de la Concordia que se concede desde el año 1986 “a aquella persona o instituciones cuya labor haya contribuido de forma ejemplar y relevante al entendimiento y a la convivencia en paz entre los hombres (entiendo que entre las mujeres también) a la lucha contra la injusticia, la pobreza, la enfermedad, la ignorancia o la defensa de la libertad o que haya abierto nuevos horizontes al conocimiento o se haya destacado también, de manera extraordinaria, en la conservación y protección del patrimonio de la humanidad”.

¿De verdad merece un premio alguien que ni cumple los compromisos con los refugiados y cierra las fronteras ante el mayor éxodo después de la II Guerra Mundial? 40.000 muertos en el Mediterráneo en el siglo XXI; el premio que se merece es el premio de la vergüenza.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: UNO, 1 del Partido Popular
- Abstenciones: NINGUNA.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Atzo, Bozeramaleen Batzordean aurkeztu zen urgentziazko mozio bat baina ez da urgentziaz tramitatuko.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Ayer se presentó una moción urgente en la Junta de Portavoces, pero no se ha tramitado de urgencia.

**BEDERATZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

- **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Aurreko bi osoko bilkuretan bezala, gogora ekarri behar dugu sartuta gauden espazioak ez dituela ez segurtasuna, ez arriskuak prebenitzeko neurriak betetzen.

  Gogora ekarri behar dugu, orobat, zenbait mozio onartuta ditugula batzordeak garatzeari buruz, irakurketa errazari buruz, mugikortasun txikiko pertsonak, hipersentsibilitatea duten pertsonak... Eta azken bilkuran parte hartzeko mahai bat antolatu genuen TAOren gaia jorratzeko. Oraindik ez gara hasi. Izan ere, ia gai guztiak Garapen Jasangarrirako batzordera bideratu ditugu, eta hilabete honetan ez gara bildu. Hortaz, azkartasun pixka bat gehiago eskatzen dugu gai horiek lantzeko, garrantzitsuak direla uste baitugu.

- **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Uztaileko plenoan bi bertaratze egon ziren eta bertaratze horietan ez ziren eskatzen ziren erantzunak eman; konpromisoa izan zen bai Ogasuneko eta baita Garapen Jasangarriko batzordeetan azalpenak emango zirela. Oraindik ez dira eman; gehien bat ez delako konbokatu, eta eskatzen duguna da konbokatzea eta erantzutea.

  Oraindik pendiente dago autobus geltoki bat ipintzea Juan de Iciar auzoaren inguruan.

  2013, 2014, 2015 eta 2016 urteetako Kontu Orokorrak onartu barik dauzkagu.

  Egin barik dago, baita ere, argindarraren kontsumoaren inguruko azterketa, eta hau egiteko konpromisoa hartu genuen lan egin behar genuelako energia berriztagarrien inguruan.

**NUEVE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Como en los dos plenos anteriores, recordar el espacio en el que estamos recluidos que no cumple la seguridad, ni las medidas de prevención de riesgos.

  Volvemos a recordar también que tenemos una serie de mociones que aprobamos aquí para desarrollar las comisiones, lectura fácil, personas con movilidad reducida, personas con hipersensibilidad... y en el último pleno organizamos una mesa participativa para tratar el tema de la OTA. Todavía no hemos empezado; de hecho, hemos derivado casi todas a la comisión de Desarrollo Sostenible y en este mes no nos hemos juntado por lo que pedimos un poco más de celeridad para ir tratando estos temas que, a nuestro juicio, son importantes.

- Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: En el pleno de julio hubo dos comparecencias, en las que no se dieron las respuestas solicitadas. El compromiso fue que se darían explicaciones tanto en la comisión de Hacienda como en la de Desarrollo Sostenible. Todavía no se han dado, principalmente porque no se han convocado, con lo que pedimos que se convoquen y se responda.

  Todavía está pendiente instalar una parada de autobús en la zona del barrio Juan de Icíar.

  Las Cuentas Generales de 2013, 2014, 2015 y 2016 están sin aprobar.

  Asimismo, el análisis del consumo eléctrico está sin hacer; nos comprometimos a ello porque debíamos trabajar en el tema de las energías renovables.

IBIa: baloreen ponentzian aldaketak eskatzen ditugu.

Etxe-hutsei errekargua aplikatzea ere eskatu dugu.

IBI: pedimos modificaciones en la ponencia de valores.

También hemos pedido que se les aplique recargo a las viviendas vacías.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 19:03ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 19:03 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.